

Arte Garaikideko Hiztegia

Espresionismoa

Dirudenez, 1911n Herwarth Walden-ek, *Der Sturm* aldizkari abangoardistako zuzendariak, eraturako kontzeptua da, eta hasieran lehenengo mundu-gerraren aurreko arteetako joera artistiko progresista guztiak hartzen zituen, fauvismotik, kubismotik eta futurismotik hasi eta lehenengo ekinaldi abstraktuetaraino. Gaur egun, arte plastikoen barruan, arte-mugimendu jakin bati aplikatzen zaio espresionismo izen hori, hain zuzen ere bere mailarik gailenena XX. mende-hasierako lehen urteetan, eta bereziki Alemaniako partean, iritsi zuen mugimenduari. Inpresionismoaren aurkako erreakzio bezala sortuz, hau munduaren kanpoko itxura aldatzen saiatu bait zen pinturan, espresionismoaren ezaugarria izango zen estimulo axalekoak eta ilusorioak bazterreraz uztea, «peinture» izenekoa baztertzea, eta horren ordez barneko sententzaren adierazpena bilatzea, gehienetan extasi erlijiosoak, barreneko konpromisu sozialak, interes psikologiko sakonenean edo ondoren etorriko zen garai bateko ikuspegi sutsuak eragindako sententzaren espresioa ematea. Begiratu, kanpotik barrura begiratzen zuen, naturalezatik izpiritura. Sentimene bidez atzi zitekeen errealitateak ez zuen jadanik estimulu-sententzaren balioa besterik, barneko bibentziaren kausazko momentu-balioa bakarrik. Bibentzia honi adierazpide bat emateagatik sortu zuten espresionistek pinturazko mintzaira bat lapidarioa, bakuna eta zuzenekoa, bere hiztegi propiotzat kolorazio trinko eta indartsu bat zuena, azalera zabaletan emandako kolorea, pintzelada espresibo eta dramatikora, eta, espresibitate areagotu eta indartzeko, deformazioa ere, batzuetan karrikatura kutsuko desitxuraketararaino, iritsi zitekeena. Kubistek bezala, artista hauek ere inpresionismoaren espresibitate mozgorgarriko arte sententzari aurre egin zioten, argiaren eta kolorearen zuzeneko ikuspen bat azaldu zuten, inpresionismotik hartutakoa, baina eduki espresibo bortitz baten onuratan erabiliz. Futurismo mediterraneoarekin kontrajarriz, garai hartan Italian ari baitzen artearen kontzientziazte problematikoa moderno baten alderako biraketa egiten, erabate-

Otto Dix, "Autorretrato", 1917.



ko zalantzaren melankoniak jota azaltzen zaigu espresionismoa, Kierkegaard-en filosofian inspiratuta. Espresionisten artelanek, horregatik, bere askatasunagatik sufrimendutan eta indarririk gabeko ari den indibiduaren enajenazio sublimatu batera garamatzate. *Die Brücke*-ko artista inpresionistek konjura egiten diote saminetan dagoen mundu torturatuaren garraisiari, bakoitzaren niaren beraren azpiegitura deskonprometituari, joera-bulkada biluziari eta ilusio erlijiosoari, eta horretarako zera baliatzen dira, bere sententzaren autosortzaile eta artikulatzailearen berezko etorrian oinarritutako bere printzipio formalak sortzen dituen kolore-derroxe estatiko baten estridentziaz. Harmonia huts baten artifizialtasunaren tokian deskonposizio asimetrikoa azaltzen da, garrasi atormentatua, eta halaxe ikusten da Edvard Munch-en koadro ospetsuan adibidez (*Ga-rasia*, 1895).

Espresionismoak hasierako epealdi bat izan zuen aurretik (1885-1900), Van Gogh, Gauguin, Munch, Ensor eta Hodler artistek errepresentatzen dutena, hauek beren lanekin erabat abandonatu bait zuten inpresionisten alaitasun sententzala eta izaki indibidualaren arazoetan kontzentratuta egoteko modua. Van Gogh-ek zalantzan jarria zeukan kolorearen balio espresibo —inpresionistek moteldua eta bere lotura tonaletatik askatua, eta puntulistik metodo zientifiko-naturalistekin aztertua zeukatena—, eta inpresionistek modu formal hutsean aplikatzen zuten kolorazio hura jaso egin zuen balorazio espresibo espezifikotara. Gauguin-ek ere lagundu egin zuen lan horretan, mihisearen artikulazio erritmiko sintetiko bat eginez forma espresibo apaingarrien bitartez. Egiker berri hau, Emile Bernard-ek hasitako *cloisonnisme*-aren tankerakoa, Alemaniara ailegatu zen, neurri batean nabi-en bitartez eta Toulouse-Lautrec-en artearekin zeukaten loturaren bitartez.

Orduan mamitu zen mugimendu espresionista benetakoa *Die Brücke* eta *Der Blaue Reiter* arte-talde alemanetan. Talde hauek Frantzian ere izan zuten antzeko beste mugimendu paralelo bat ere, Pariseko pintore fauvistek (Matisse, De Vlaminck, Derain, Valadon, Utrillo, Van Dongen, Dufy) eta «peintres maudits» deitutuek (Modigliani, Chagall, Rouault, Soutine) ordezkatzen zutena, hauengan ere, jakina, sententzaren grinatsu baten lirismo melankolikoa nagusitzen bait zen inpresionisten alaitasun kolorista pisu-arin eta zorabiagarriaren gainetik.

Die Brücke-ko pintoreen koadroetan (Kirchner, Schmidt-Rottluff, Haeckel, Mueller, Pechstein, Nolde) gizabanakoarengan dagoen etengabeko krisiaren osagarria espresatzen da, eta konbentzionalismo sozialean ematen den hondoratze indibidualaren tragedia, erritmo gaixobera eta kolore minen bidez azaltzen dena. Orbanik gabeko natura batera, *Die Brücke*-ko pintoreen paisajeetan purutasun-ikuspen bezala azaltzen dena, ihes eginez bakarrik itzuri dakioke espresio animikoaren barne-borrokari.

Espresionismo abstraktua

Bigarren mundu-gerraren ondoren Estatu Batuetan eta Europan, batez ere berrogeitamarreko eta hirurogeiko lehenengo urteetan, hain zabalpen eta hain indarraldi ia esplosiboak ezagutu zituen eta, pintura emozionalki abstraktu bat bilatu nahi zuen joera hark beste bi joeretan zituen bere sustraiak errotuta, batetik Kandinskyk gauzatutako kolore eta formaren arteko erlazio hutsaren konposizio erritmiko-harmonikoan oinarritzen baitzen, eta bestetik Max Ernst-en surrealismo sinbolikoan eta André Masson eta Roberto Matta-ren surrealismo automatikoan.

Peggy Guggenheim abangoardiako arte-bildumalari ipar-amerikar konprometituarekin ezkondu zenetik, Max Ernst eginahalak egiten hasi zen artista amerikar eta europarren arteko komunikazio-mugimendu bat bultzatzen, eta hortik hasita, Frantzian eta Ipar Ameriketara ukitu abstraktu-espresionistako korronte paraleloak hasi ziren sortzen, bata bestearen estimulagarri, eta tatxismoa eta *action painting* izenak hartuz bata eta besteak.

Hogeiko urteetarako, jadanik erabilia izan zen espresionismo abstraktuaren izen hori, espresionismoaren garaialdi seinatatu batzuk izendatzeko (hala E. von Sidow-ek bere *Die deutsche expressionistische Kultur und Malerei*, 1920koan). A.H. Barr arte-gaietako idazleak, deitura hori erabili zuen 1929an Kandinskyren lehenengo abstrakzioei buruz idaztean, eta aurrerago ere, 1947an, berdin De Kooning eta Pollock pintore garaikideei buruz aritzean. Kontzeptu hori zabaldu egin zen gero, eta era guztietako espresio dinamikoak, konposizio librekoak eta objektibotasunari uko egiten ziotenak hartzeraz heldu zen. Berezko izaera hartzeraz iritsi zen Estatu Batuetako arte-kritikan. Berrogeiko urteetako bigarren erdialdean, espresionista abstraktu haietako askok, azkenean beren forma mitiko edo arkaikoekin, askotan kutsu surrealista gogorrekoekin, estilo abstraktu batean bukatu zuten. Zeinuzko mintzairamodu dinamiko bat eta kaligrafia abstraktu bat nagusitu ziren koadroan. Alde honetatik oso adierazgarria da Adolph Gottlieb iparramerikarrak esandakoa: «Eginahalak eginda saiatzen naiz berez atzitzen zailak eta iheskorak diren eta niretzat sententzaren balio bat hartzen duten forma piktorikoak proiektatzen. Garrantzitsuena izaten da irudiaren ikuspenera neri azaltzen zaidan bezala, batere desitxuratu gabe eramatea oihalera. Edozein aldaketak adulterazioa ekarriko luke».

Espresionismo abstraktuko pintoreen artean aurkitzen dira (beren lanaren garai garrantzitsu eta jakin batzuetan behintzat): Jackson Pollock, Willem de Kooning, Adolph Gottlieb, Clyfford Still, Hans Hofmann, Antonio Saura eta Robert Motherwell. (Ikus *action painting*, arte informala, abstrakzio lirikoak, tatxismoa).

(Karin Thomas: *Dumont's Kleines Sachwörterbuch zur kunsts des 20. Jahrhunderts* hiztegiaren itzulpena)